

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
GORPUTZ ADIERAZPENA ETA BERE DIDAKTIKA	151324	2024-25
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
HAUR HEZKUNTZA GRADUA	3	1
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	6	EUSKARA
Irakaslea(k)		
JUNE KORTAZAR ZABALA		

Justifikazioa

“Gorputz Adierazpena eta bere Didaktika” ikasgaiaren, Gorputz Adierazpenaren didaktika espezifikoa sakonduko dugu, non Haur hezkuntzako umeen garapen ebolutiboaren arabera eta curriculumaren gaitasunak aintzat hartuz, ikaskuntza egoerak diseinatuko ditugun. Ikasleek ikas egoera bat sortuko dute ikuspuntu globalizatzailea eredutzat hartuz. Ikasgaiaren zehar, kontutan hartuko ditugu Gorputz Adierazpeneko ezaugarriak, non sormena, bat-batekotasuna eta teknika paper garrantzitsua betetzen duten. Gure helburu nagusia, Haur Hezkuntzako umeen mugimendu propioa garatzea izango da, berain gorputz lengoia adierazgarriago eta komunikatiboagoa izan dadin.

Ikasgaiaren zehar, “talde lana” konpetentzia orokorra landuko dugu, elkarlaneko ikaskuntza sustatuz eta lankidetzaren aktiboan jarduten

Aurrebaldintzak

Ez

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- TALDE LANA: Menderatze maila 2: Taldea sendotzen eta garatzen laguntzea, komunikazioa, zereginen banaketa orekatua, barruko giroa eta kohesioa sustatuz.

Berriazko gaitasunak

- Haur Hezkuntzako umeen autokontzeptua garatzeko ikaskuntza jarduerak formulatzea, gorputz adierazpeneko hezkuntza-ekintzen bidez.
- Egoera didaktikoei lotutako aurkezpen eta argitzapenetan, ez hitzezko komunikazio estrategiak modu eraginkorrean erabiltzea gorputz lengoaiaren bidez.

- Gorputz adierazpenari lotutako jarduerak erabiliz, unitate didaktiko globalizatuak diseinatzea.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaian



1.2.3. 3. GIH | Osasuna eta ongizatea | Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztion ongizatea sustatzea adin guztietan

Ikasgai honetan, ikasleak gorputza bere osotasunean ulertuko du, alderdi soziala, emozionala, kognitibo eta fisikoa landuz eta ikaslearen ongizatean duen garrantziaz hausnartuz.

Garrantzi handikoa da norberaren gorputza ulertzea eta balioestea, aniztasun estetikoak onartuz, auto-kontzeptu on bat garatu ahal izateko eta gorputzarengan dauden jarrera diskriminatzaile zein kaltegarriak ekiditeko.



LSH | Hezkuntza ekologikoa

Edukiak

1. Gorputz Adierazpenaren kontzeptua.
2. Gorputz adierazpenaren kokapena eta ekarpenak Haur Hezkuntzako etapan.
3. Gorputz adierazpenaren oinarriko printzipioak.
4. Gorputz adierazpenaren metodologia.
5. Sormenaren metodologia.
6. Autokontzeptu fisikoaren garrantzia haurren nortasunaren eraikuntzan.
7. Ez hitzezko komunikazioa, irakaslearen irakas-estrategia eraginkorra.
8. Haur Hezkuntzarako Gorputz adierazpeneko ikas egoeraren diseinua.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaian erabilitako estrategiak, eduki teorikoen eta lan praktikoen mailakako eta paraleloko garapena sustatzen du. Horretarako, hurrengo ikas-metodoak eta teknikak erabiliko dira:

- **Aurretiko ideien azterketa:** Ikasleek, talde lanean, hausnarketak eta eztabaidak kontrastatuko dituzte, ikasleen aurrezagutzak eta aurreiritziak azaleratuz. Lehen eztabaida hauek, alde batetik Gorputz Adierazpen kontzeptuari buruz hitz egingo dute euren esperientziekin loturak eginuz eta beste alde batetik autokontzeptuari buruz dituzten aurreiritziak azaleratuko dituzte, zalantzak eta argitu beharreko topikoak bereiziz.
- **Oinarriko testuen irakurketa eta analisia:** Kompetentzien garapena bultzatzeko, oinarri teorikoaren eraikuntzari ekingo diogu lehenik eta behin. Horretarako, ikasleek taldeka, irakasleak eskainitako

oinarrizko dokumentazioaren irakurketa eta azterketa lana egin beharko dute (artikuluak eta 75/2023 Dekretua).

- **Esposizioa:** Kontzeptualizazio lana egingo da irakaslearen azalpenen bitartez. Kontzeptualizazio lan honek, Gorputz adierazpenaren espezifikotasunean progresiboki sakontzera eramango gaitu, korrante pedagogikoan, auto-kontzeptuan eta ez-hitzezko komunikazio edukiak argituz.
- **Talde esperimentazio aktiboa:** Teorian ikasitakoa praktikan jartzea beharrezkoa da, askotan praktika hori fisikoa eta taldekakoa izanda. Kontzeptu teorikoen aplikazioa egingo dugu, ikasleen esposizioen bidez, ariketa praktikoen bidez eta AOI metodoan lan eginez.
- **Aplikazioa eta transferentzia:** Ikasgaien zehar lortutako ezagutza teorikoen transferentziak egiteko, proposamen praktiko baten diseinua egingo dute. Proiektu globalizatzaileak eta Haur Hezkuntzako dekretua aintzat hartuz, Unitate Didaktiko bat taldeka egingo dute non Gorputz Adierazpenaren edukiak agertuko diren. Horretaz aparte, ikasleak praktika fisikoaren bidez ikasitako edukiak, bere taldekideekin aplikatu beharko ditu, irakasleak proposaturiko egoera berrietan ere edukien transferentziak eginez.
- **Feedback eta finkatzea:** Praktika fisikoaren ostean eta froga espezifikoen ostean, taldeka hausnarketak egingo dituzte, teoriarekin erlazionatuko dute eta finkatzeko, ikasleek ariketa berriak edo baieztapen berriak sortuko dituzte.
- **Aurkezpen formala:**
 - o **Ebaluazio froga espezifikoa 1:** Taldeka, Haur Hezkuntzarako ikas egoera bat burutu beharko dute, tratamendu globalizatzaile batetik, non Gorputz Adierazpeneko saioak konpetentziak lortzeko baliabidea izango diren.
 - o **Ebaluazio froga espezifikoa 2:** Taldeka, ez hitzezko komunikazioaren osagaietan sakondu beharko dute idatzizko lan bat aurkeztuz eta ikasitakoa praktikan jarri beharko. Gorputz lengoaiari buruzko ezagutzak eraikiko dituzte eta taldekide bakoitzaren Gorputz Lengoiaren erabilpenaren behaketa egingo dute. Irakaslearen rolean jarri beharko dira eta bideo grabazio baten bidez, konfrontazioaren teknika erabiliko dute, euren praktikei buruz hausnarketak egiteko eta erabilitako Gorputz Lengoaia hobetzeko.
 - o **Bitakora koaderno:** Ikasleak, bitakora koaderno bat eraiki beharko du, ikasgaiaren atal praktikoa eta atal teorikoa uztartuz. Koaderno honetan ere, ikasleak hausnarketa sakonak egin beharko ditu, , ekarpen berriak, beste aplikazioen proposamenak eta ondorioetan sakonduz.
 - o **Sorkuntzak:** Ikasleek taldeka, gorputz lengoiaren edukiak aplikatu beharko dituzte, sormenezko sorkuntzak sortuz, mugimenduaren bitartez. Saio praktikoetan aurkeztuko dituzte.
- **Talde lanaren kontratua, aktak eta taldearen koebaluazio informea:** Gaitasun orokorra lantzeko asmoz, txosten hauek entregatu beharko dituzte talde eta taldekide guztiek. Kalifikatzerakoan, puntuazioa irakaslearekin negoziatua izango da.
- **Ebaluazioa:** Saio praktiko eta aurkezpen formalen ostean, ikasleek eta irakasleak, egindako lanen ebaluazioa egingo dute, aurretik eskainitako ebaluazio irizpideak kontuan harturik. Irakasleak hobekuntzarako orientabideak emango dizkie.

Ikasgaiaren 6ECTS kontuan harturik, 150 orduak honela banatuta daude:

- Orduak eta jarduerak gela barruan: 60 ordu
 - Esposizioak: 20,5 ordu.
 - Jarduera praktikoak: 21,75 ordu.
 - Behaketak eta Hausnarketak: 4,25 ordu.
 - Ebaluatze jarduerak: 13,5 ordu.
- Orduak eta jarduerak gelaz kanpo: 90 ordu
 - Ikasketa eta berrikusketa pertsonala: 17 ordu.
 - Jarduera praktikoen prestaketak: 13,5 ordu.
 - Behaketak eta Hausnarketak: 9 ordu.
 - Ebaluatze jarduerak: 30,5 ordu.
 - Tutoretza jarduerak: 10 ordu.
 - Bitakora Koadernoak: 10 ordu.

Ebaluazioa

Hurrengo teknika eta kalifikazio prozeduren bitartez ebaluatuko dira gaitasuna orokorra eta gaitasun espezifikoak:

- **Gaitasun Orokorra (Talde lana) %15:** Taldearen kontratua eta aktak, Talde lanaren koebaluazioa eta irakaslearen sorkuntza praktikoetan talde lanaren azterketa %15a (kalifikazio negoziatua).
- **Gaitasun espezifiko 1 (Haur Hezkuntzako umeen autokontzeptua garatzeko ikaskuntza jarduerak formulatzea, gorputz adierazpeneko hezkuntza ekintzen bidez)%25:** Idatzizko azterketaren %5a, Ebaluazio froga espezifikoaren %10a eta Demostrazio praktikoen behaketaren %10a.
- **Gaitasun espezifiko 2 (Egoera didaktikoei lotutako aurkezpen eta argitzapenetan, ez hitzezko komunikazio estrategiak modu eraginkorrean erabiltzea gorputz lengoaiaren bidez) % 20:** Idatzizko azterketaren %5a, Ebaluazio froga espezifikoaren %5a eta Demostrazio praktikoen behaketaren %10a.
- **Gaitasun espezifiko 3 (Gorputz adierazpenari lotutako jarduerak erabiliz, unitate didaktiko globalizatuak diseinatzea) %40:** Idatzizko azterketaren %5a, Aurkezpen praktikoa %15a, Ebaluazio froga espezifikoaren % 10a eta Demostrazio praktikoen behaketaren %10a.

EBALUAZIO SISTEMA:

- Ebaluazio froga espezifikoak %25
- Bitakora koadernoak %15
- Demostrazio praktikoen behaketa %30
- Idatzizko azterketa %15
- Talde lana %15

Ikasgaia gainditzeko ohiko deialdian, 10 puntuaziotik 5 bat atera beharko da. Gaitasun orokorra, idatzizko azterketa eta Ebaluazio froga espezifikoak, derrigorrezkoa izango dira gainditzea.

Ikasgaia gainditzeko ez ohiko deialdian, ohiko deialdiaren eskaera berdinak jarraituko dira. Ez gainditutako atalak berriro egin eta gainditu beharko dituzte. Salbuespenak barne, beti ezarritako gaitasun orokorraren arabera, ebaluazio desberdina adostuko da.

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik koptatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikuluaaren arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

Jardueren jarraipen ona egiteko eta programaren baldintzak betetzeko, ikaslea honako dokumentazioarekin gidatuko da.

- Ikasgaiaren materiala ALUD plataforman eskegita.
- Haur Hezkuntzako dekretua 75/2023
- Oinarrizko bibliografia.

BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA:

- Arteaga, M., Viciano, V. y Conde, J. (2006). Desarrollo de la expresividad corporal, tratamiento globalizador. Barcelona: Inde.
- Bossu, H. y Chalaguier, C. (1987). La expresión corporal. Método y práctica. Barcelona: Martínez Roca.
- Calmels, D. (2004). El juego corporal en los primeros años de vida. Buenos Aires: Biblos.
- Cañizares, J.M. & Carbonero, C. (2016). Expresión Corporal en la edad escolar. Sevilla: Wanceulen.
- Cañizares, J.M. & Carbonero, C. (2016). Capacidades perceptivo motrices, esquema corporal y lateralidad en la infancia. Sevilla: Wanceulen.
- Carbajal, L. (2008). Hablar con el cuerpo: la expresión corporal un camino hacia el bienestar. Barcelona: Comanegra.
- Castañer, M (2000). Expresión Corporal y Danza. Barcelona: inde.
- Cervera, J. (1991). Cómo practicar la dramatización con niños de 4 a 14 años. Madrid: Cincel.
- Cifo, M.I. (2016). Actividades físico expresivas. Murcia: Servicio de publicaciones Universidad de Murcia.
- Conesa, E. (2017). Juegos y ejercicios de expresión corporal. Murcia: Universidad de Murcia.
- Chalmers, D. (2011). Guía práctica para enseñar teatro a niños y niñas de infantil. Barcelona: Gráo.

- Chazin, S.M. (2007). Juegos de expresión corporal para niños. Madrid: CCS.
- Forner, A. (1987). La comunicación no verbal. Actividades para la escuela. Barcelona: Gráo.
- García, C. & Sánchez, A. (2010). Expresión y comunicación. Madrid: Mc Graw-Hill.
- Hugas, A. y Batle, C. (1996). La danza y el lenguaje del cuerpo en la educación infantil. Madrid: Celeste.
- Jaques- Dalcroze, E. (2017). Rítmica y creación: gesto, movimiento y forma. Madrid: La pajarita de papel.
- Kalmar, D. & Gubbay, M. (2017). El movimiento en la educación : el arte de las consignas en la expresión corporal, la comunicación y otras disciplinas. Buenos Aires: Ediciones novedades educativas.
- López, R., Gordillo, F. & Grau, M. (2016). Comportamiento no verbal: más allá de la comunicación y el lenguaje. Madrid: Pirámide, D.L.
- Manent, G. (1992). El niño y la relajación. Madrid: Mandala.
- Motos, T. (1993). Iniciación a la expresión Corporal. Barcelona: Humánitas.
- Reina, R. (2017). Fundamentos teóricos de la expresión corporal. Madrid: Pila Teleña.
- Rudolf, L. (1984). Danza educativa moderna. Barcelona. Paidós.
- Sánchez, G., Ruano, K. & Cachadiña, P. (2009). Expresión Corporal y educación. Sevilla: Wanceulen.
- Schinca, M. (2011). Manual de psicomotricidad, ritmo y expresión corporal. Madrid: Escuela española.
- Sierra, M.A., Learreta, B. & Ruano K. (2005). Los contenidos de la expresión corporal. Barcelona: Inde
- Stokoe, P. (1992). La expresión corporal en el jardín de infantes. Barcelona: Paidós.
- Tejerina, I.(1994). Dramatización y teatro infantil. Madrid: Siglo XXI.
- Tena, I.(2018). Expresión corporal desde la danza creación. Zaragoza: Prensas de la universidad de Zaragoza.
- Torres, J.(2000). Marco conceptual y curricular de la expresión corporal en educación primaria. Granada: Proyecto sur.
- Wainwright, G. (1987). El lenguaje del cuerpo. Madrid: Pirámide.